

Euskal AEko Administrazioetako enplegua %2,9 hazi zen 2018an

Emakumeak guztizkoaren %63,1 dira izan 2018an, eta ehuneko bi puntu baino gehiago handitu dira 2011tik

Euskal AEko Administrazio Publikoek, batez beste, 135.761 enplegatu izan zituzten 2018an, Eustaten datuen arabera, aurreko urtean baino %2,9 gehiago. Estatuaren Administrazioetako eta Gizarte Segurantzako langileak ez dira kontuan hartzen.

Euskal AEko Administrazioetako 135.761 langileetarik, %65 Autonomia Erkidegoko Administrazioetakoak ziren, %19,2 Toki Erakundeetakoak, %8,2 Foru Aldundietakoak eta gainerako %7,6ak Unibertsitateetakoak, fundazioetakoak eta beste erakunde publiko batzuetakoak. Euskal AEko erakundeen artean enpleguak izan duen banaketa horrek aldaketa gutxi izan ditu urteetan zehar, baina gora egin du Gainerako Erakunde Publikoen pisuak, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Toki Erakundeak ez direnak, zeintzuek ia ehuneko puntu bat handitu dute beren pisua 2011 eta 2018 arteko guztizkoan; kategoria horretan Euskal Herriko Unibertsitatea da erakunde garrantzitsuenak. Foru Aldundiek ere pixka bat (2 hamarren) handitu dute pisua aldi horretan, Eusko Jaurlaritzaren (-ehuneko 0,2 puntu) eta Toki Erakundearen (-ehuneko 0,9 puntu) kaltetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan langileak, erakunde motaren arabera

	2011		2015		2016		2017		2018		2018/2017 (%)
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	
Guztira	127.291	100	128.047	100	129.737	100	131.885	100	135.761	100	2,9
1.- Eusko Jaurlaritza	83.009	65,2	83.447	65,2	84.752	65,3	86.046	65,2	88.210	65,0	2,5
2.- Foru aldundiak	10.201	8,0	10.186	8,0	10.404	8,0	10.727	8,1	11.145	8,2	3,9
3.- Tokiko entitateak	25.532	20,1	25.184	19,7	25.400	19,6	25.565	19,4	26.114	19,2	2,1
4.- Beste Entitate Publiko Batzuek	8.549	6,7	9.230	7,2	9.181	7,1	9.547	7,2	10.293	7,6	7,8

Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda

2017arekin konparatua, urteko batez besteko enplegua Euskal AEko Administrazioetan 3.876 pertsonatan hazi zen; azpimarragarria da portzentajeaz Foru Aldundien bilakaera, %3,9ko tasarekin, eta ondoren Eusko Jaurlaritza dator, %2,5ekoarekin. Toki Erakundeek eta haien mendeko erakundeek %2,1eko hazkundea izan zuten. Bestalde, gainerako Erakunde Publikoek (besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitatea, fundazioak eta elkarteak), oro har, %7,8ko aldakuntza izan dute.

Esparru arautzailearen arabera, 2018ko abenduaren 31n, funtzionarioak Euskal AEko Administrazio Publikoetan enplegatutako langile guztien %61,3 ziren, %37,8 lan-kontratadun langileak ziren, bi kasutan barnean sartuz Osakidetza estatutupeko langileak, eta %0,9 goi-kargadunak ziren, aurreko urteko ehunekoen oso antzekoak horiek denak.

Euskal AEko Administrazio Publikoen zerbitzuko langile finkoak –funtzionarioak, lan-kontratadunak eta estatutupekoak– langile guztien %57,9 ziren, urtebete lehenago baino puntu eta erdi gutxiago; bitarteko funtzionarioak, berriz, %16,3 ziren (4 hamarren gehiago), eta aldi baterako langileak, %24,9 (ehuneko 1,1 puntu gehiago).

2018ko abenduaren 31n Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan langileak, esparru erregulatz

	GUZTIRA	Eusko Jaurlaritza eta menpeko organismoak	Foru aldundiak eta menpeko organismoak	Tokiko entitateak eta menpeko organismoak	Beste entitate publiko batzuk
Guztira	139.052	90.875	11.006	26.818	10.353
Goi-karguak	1.210	314	127	598	171
Funtzionario guztiak	85.202	59.751	7.070	14.986	3.395
Funtzionario finkoak	62.496	45.942	4.625	9.306	2.623
Aldi baterako funtzionarioak	22.706	13.809	2.445	5.680	772
Lan kontratadun guztiak	52.640	30.810	3.809	11.234	6.787
Lan kontratadun finkoak	18.010	7.486	2.249	5.494	2.781
Aldi baterako lan kontratadunak	34.630	23.324	1.560	5.740	4.006

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen gidazerrenda

2018ko abenduaren 31n gizonezkoak ziren Euskal AEko Administrazio Publikoetako langileen %36,9, eta emakumezkoak %63,1. Aurreko urtearen aldean, %4,3ko hazkundera izan da emakumezkoen kasuan eta %2koa gizonezkoenengan. Emakumeen nagusitasun hori areagotu egin da azken urteotan. Halatan, 2011ren aldean, emakumeek ehuneko bi puntu baino gehiago irabazi dituzte guztizkoaren gainean.

Abenduaren 31n Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan langileak, sexuaren arabera

	2011		2015		2016		2017		2018	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira	128.540	100	130.447	100	131.973	100	134.440	100	139.052	100
Gizonak	50.408	39,2	50.085	38,4	50.100	38,0	50.316	37,4	51.307	36,9
Emakumeak	78.132	60,8	80.362	61,6	81.873	62,0	84.124	62,6	87.745	63,1

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen gidazerrenda

Lurraldeen partiketari doakionez, Bizkaiak langile enplegatu guztien %48,7 ditu hartzen; ondoren, Gipuzkoak, %30; azkenik, Arabak, gainerako %21,3ak. 2017koaren aldean oso antzekoa da partiketa.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan langileen lurralde-banaketa. 2018

	GUZTIRA	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
EAKo administrazioak	135.761	28.864	66.161	40.736
Eusko Jaurlaritza	88.210	18.550	43.561	26.099
Foru aldundiak	11.145	3.681	4.852	2.613
Tokiko entitateak	26.114	4.744	12.390	8.980
Euskal AEko beste entitate publiko batzuk, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko instituzioak	3.690	770	1.385	1.535
Euskal Herriko Unibertsitatea	6.603	1.120	3.974	1.509

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen gidazerrenda

Oharra: urteko batez besteko lana

Ohar metodologikoa: Direktorioaren esparruan Administrazio Publikoak dira: Euskal AEko Administrazio Orokorra, Foru Aldundiak eta Udalak, eta baita ere Erakunde Autonomiadun Administrazioak, Erakunde Publikoak, Sozietate Publikoak, Fundazioak eta haien menpeko Irabazi Asmorik Gabeko Institutuzioak. Barne daude %50eko edo gehiagoko parte-hartze publikoa duten erakunde guztiak, hala administrazio bakar batenak nola zenbaitenak.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62